

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hainbat kontseilu erregulatzailerik berritzeko hauteskundearen deialdia

Ondorengo kontseiluak dira: "Lodosako Pikillo Piperra", "Erronkari", "Tuterako Orburua" eta Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua CPAEN-NNPEK

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 21

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak hauteskundeak deitu ditu lau kontseilu arautzaile berritzeko. Hain zuzen ere, honako hauek dira: "Pikillo Piperra" eta "Erronkari" Jatorri Deitura Babestuak; "Tuterako Orburua" Adierazpen Geografiko Babestua; eta Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua (CPAEN-NNPEK).

Hauteskundearen prozedura arautzen duten arauak Isabel Elizalde kontseilariak emandako [Foru Aginduan](#) zehazten dira.

Prozesuaren hurrengo hitzordua otsailaren 4an izango da, eta orduan izendatuko dira Hauteskunde Batzorde Goreneko kideak eta deiturretako, adierazpen geografikoetako eta nekazaritza-produkzio ekologikoko Hauteskunde Batzordea. Lehena lehendakariak, bost kidek eta idazkariak osatuko dute; bigarrena (Deituren Batzordea), berriz, lehendakariak, zortzi kidek eta idazkariak osatuko dute.

Otsailaren 13an Batzordeak eratu ondoren, behin betiko erroldak argitaratuko dira martxoaren 8tik aurrera. Hautagaiak martxoaren 13ra bitarte aurkeztu ahal izango dira, eta mahaien eraketa eta bozketak apirilaren 16an egingo dira. Azkenik, maiatzaren 9an kide berriak karguaz jabetuko dira.

JDB edo AGBeko kontseilu erregulatzailerik funtzio nagusiak izango dira produktuak kontsumitzaileen artean hedatzea eta sustatzea kualitateak nabarmenduaz, babestutako izena babestea, inskribatutako operadoreen erregistroaz arduratzea, eta, kasu batzuetan, hartutako produktuen kontrolaz zuzenean arduratzea eta arautzen dituen baldintza-pleguaren arabera ekoiztu direla ziurtatzea.